	PREBENTZIO OROKORREKO JARRAIBIDEA	Jarraibide zk. PI-ITS-001
	SARRERA, ZIRKULAZIO ETA EGONALDIEI ETA ARRISKU ETA PREBENTZIO-NEURRI OROKORREI BURUZKO INFORMAZIOA PORTU-BARRUTIKO ITSAS SEINALEEN IRISPIDE, BIDE ETA JABARI PUBLIKO KOMUNEAN	Ber. zk. 3
		Orria. 1 / 4

Jarraibide hauek nahitaez bete beharrekoak dira itsas seinaleen irispideetan, bideetan eta jabari publiko komunean.

1. SARRERA, ZIRKULAZIO ETA EGONALDIRAKO ARAUAK


- 1.1. Itsas seinaleetan iristeko eta/edo sartzeko, Pasaiaiko Portuko Agintaritzaren *Proiektuak eta jasangarritasuna* Sailaren alde aurreko baimena beharko da.
- 1.2. *Itsas seinalearen arduradunari* alde aurretik jakinaraziko zaio sarrera hori.
- 1.3. Sarrera hori egin aurretik, identifikatu egin beharko dira pertsonak.
- 1.4. Pasaiaiko Portuko Agintaritzaren *Proiektuak eta jasangarritasuna* Saileko kide bat –horrela identifikatua eta egonaldiak irauten duen bitartean komunikazio-modu jarraitu bat eskainiko duena– arduratuko da egokitzen jotzen diren jarraibide guztiak jakinarazteaz, eta horiek nahitaez bete beharrekoak izango dira.
- 1.5. Bertara sartzen diren pertsonak beren jardueraren arabera beharrezkoa duten eta sartzeko baimena ematen zaien tokietara zuzendu beharko dute eta haietan bakarrik egon beharko dute.
- 1.6. Debehatuta dago etengailuetan edo instalazioetako beste edozein ekipotan manipulazioak egitea, baimen berezirik izan ezean (*zuzeneko edo zeharkako kontaktu elektrikoetarako arriskua dago*).
- 1.7. Ez erabili makinari edo ekiporik, alde aurreko baimenik gabe.
- 1.8. Igarobideetan ez oztoporik sortu.
- 1.9. Arreta berezia eskaini irregulartasunei eta lurtean egon daitezkeen gauzei (*pertsonak maila berean erortzeko arriskua eta gauzak zapaltzeko arriskua*).
- 1.10. Bideen eta jabari publikoaren inguruetan oinezkoak ibiltzen direnean, arreta berezia eskaini behar zaio ibilgailuen zirkulazioari (*oinetako harrapatzeko arriskua*).
- 1.11. Seinale mota desberdinak errespetatu.
- 1.12. Pasaiaiko Portuko Agintaritzak Portuko Polizia Zerbitzu bat du eguneko 24 orduetan, Eraikin Traslantikoaren beheko solairuan kokatua (*Portuko Barrutia z/g, Pasai Antxo*). (Pasaiaiko Portuko Agintaritzaren telefonogunearen zenbakia: 943351844 / 943350022).

2. IBILGAILUAK (KAMIOIAK, MAKINERIA, AUTOAK...)

- 2.1. Langile baimendu, kualifikatu eta beren jardueren erantzule direnek bakarrik erabili behar dituzte ibilgailuak eta makineria, eta beren jarduera burutzen duten enpresetan ezarritako arau bereziak errespetatuko dituzte.
- 2.2. Bide-seinaleak eta bide eta irispideetako trafiko-seinaleak errespetatu.
- 2.3. Ibilgailuak aparkatzeko orduan, Pasaiaiko Portuko Agintaritzaren *Proiektuak eta jasangarritasuna* saileko kidearen adierazpenak bete beharko dira.

3. ITSAS SEINALEEN EREMU BEREZIAN SARTZEA

- 3.1. Horretarako baimenik eduki ezean, debehatuta dago itsaslabarretara eta/edo erorketa libreko inguruetara joatea, itsas seinalearena bera ere barne, eta edonola ere, ekidin egin beharko dira alferrikako arriskuak eragin ditzaketek ekintza zuzentziagabeak (*pertsonak maila desberdinetara eta/edo itsasora erortzeko arriskua*).
- 3.2. Itsaslabarrean edo erorketa libreko beste eremuren batean eginkizun bat egin behar izanez gero, kontu handiz jokatu eta egoki diren segurtasun-neurriak bete beharko dituzte.
- 3.3. Debehatuta dago, halaber, koadro elektriko, makina-gela, depositu, terraza eta linternen barrualde nahiz kanpoaldera sartzea, berariazko baimena eduki ezean, itsas seinalearen arduraduna ere barne dela, eta edonola ere ekidin egin beharko dira alferrikako arriskuak eragin ditzaketek ekintza zuzentziagabeak.
- 3.4. Bizkarrez jaitsi linternara joateko eskailera-tarte estu eta zailak, *objektu higiezin aurka kolpeak hartzeko arriskua* eta *pertsonak maila desberdinetara erortzeko arriskua dagoelako*.
- 3.5. Linternara iritsi ondoren, arreta berezia eskaini behar zaio jaisteko eskailera hasten den tarteari (*pertsonak maila desberdinetara erortzeko arriskua*).
- 3.6. Senokozulua itsasargian debehatuta dago horren perimetroko barandara hurbiltzea eta bertan bermatzea (*pertsonak maila desberdinetara erortzeko arriskua*).
- 3.7. Santa Klara itsasargira joatean, eta ontziz egin beharra dagoenez gero, errespetatu egingo dira patroiak emandako gomendioak eta arreta berezia eskainiko zaie ontziratze/lehorreratze ekintzei (*pertsonak itsasora erortzeko arriskua*).

	PREBENTZIO OROKORREKO JARRAIBIDEA	Jarraibide zk. PI-ITS-001
	SARRERA, ZIRKULAZIO ETA EGONALDIEI ETA ARRISKU ETA PREBENTZIO-NEURRI OROKORREI BURUZKO INFORMAZIOA PORTU-BARRUTIKO ITSAS SEINALEEN IRISPIDE, BIDE ETA JABARI PUBLIKO KOMUNEAN	Ber. zk. 3
		Orria. 2 / 4

4. LARRIALDIA

- 4.1. Edozein arazo, larrialdi edo anomalia Pasaiaiko Portuko Agintaritzaren *Proiektuak eta jasangarritasuna* Saileko kideari jakinarazi beharko zaio lehenbailehen, hala egokitzen denean dagozkion jarduerak abian jarri ahal izan daitezkeen.
- 4.2. Pasaiaiko Portuko Agintaritzak Larrialdietarako Kontrol Zentro bat du, eguneko 24 orduetan, eta larrialdi kasuren batean beharrezkoak izan daitezkeen azalpenak eta laguntza eskaini ahal izango ditu (*Telefonoa: 943353364*).
- 4.3. Pertsonen lesioa eragin dien larrialdiren bat (istripua) gertatu bada: Lasai egon eta istripua izan duena lasaitzen ahalegindu. Pasaiaiko Portuko Agintaritzaren *Proiektuak eta jasangarritasuna* Saileko kideari jakinarazi, egoki den laguntza antolatu dezan.
- 4.4. Anbulantzien, suhiltzaileen eta Ertzaintzaren laguntza eskatzeko harremanetarako telefonoa **112** zenbakia da.
- 4.5. Erakunde bakoitzak antolatuta duen prebentzio-ereduak finkatuta eduki behar du nola eskaini behar den lehen sorospena, edozein eratako larrialditan. Nolanahi ere, jakinarazten da Trasatlantiko Eraikinaren beheko solairuetan Pasaiaiko Portuko Osasun Zentroa kokatua dagoela, eta asteleheneetik ostiralera irekita dagoela 7:00etatik 21:00etara (Telefonoa: 943350147 edo 606790997), gai honetan Erakunde bakoitzari dagozkion erantzukizunen kaltetan izan gabe.
- 4.6. Larrialdi-kasuren bat gertatzen baldin bada, alarma-deiarekin edo horrelakorik gabe, langile guztiak eten egin beharko dituzte lanak, segurtasunezko baldintzetan utziz. Erabiltzen ari diren ekipoak deskonektatu egingo dituzte eta eremu horretatik irtengo dira leku seguru batera joateko, eragindako eremu horretatik kanpo. Hori guztia, behar den lasaitasunarekin.
- 4.7. Itsasargiak jendez hutsarazi behar izanez gero, irteera-bideei dagozkien seinaleek diotenari kasu egin.
- 4.8. Itsasargiek suteak itzaltzeko sistemak dituzte (su-itzalgailuak), behar bezala seinalatuak. Ekiporen bat erabiliz gero, jakinarazi egin behar zaio *Proiektuak eta jasangarritasuna* saileko kideari.

5. INGURUMENA

- 5.1. Itsas seinaleetan lan egiten duten Erakunde guztiak ingurumena babesten dela bermatu beharko dute, eta horretarako, ekidin egin beharko dute hondakinak bertan uztea, konponketak egin bitartean gasak atmosferara igortzea, likido kutsagarriak isurtzea, lurzorua kutsatzea eta abar.
- 5.2. Edozein eratako hondakinak (arriskutsuak, geldoak, hiri-hondakin solidoak edo parekagarriak) sortzen dituzten Erakunde guztiak horiek jaso eta erretiratu egin beharko dituzte.
- 5.3. Ez bota ezer, alde zuzeneko baimenik gabe.
- 5.4. Energia-baliabideak ahalik eta ongien erabili, ahal den guztietan (Adib.: ez utzi ekipoak eta instalazioak martxan, horren beharrik ez dagoenean).
- 5.5. Isurketak, ihesak, ingurumen-istripuak egonez gero, arduradun hurbilenari jakinarazi, eta hark egoki den jarduera antolatuko du. Nolanahi ere, gertaera hori *Proiektuak eta jasangarritasuna* saileko kideari eta Pasaiaiko Portuko Agintaritzaren Portuko Poliziari jakinarazi behar zaie lehenbailehen.

6. AZKEN OHARRAK

- 6.1. Itsas seinaleetan lan egiten duten Erakunde guztiak laneko arriskuen prebentziorako legeria bete beharko dute, eta bereziki, hauxe egin beharko dute:
 - Ordezkeri Baimendu bat izendatu behar dute jarraibide hau zaintzeko eta betearazteko, berarekin batera jardun dezaketen gainerako Erakundeetako Ordezkariekin koordinatuz eta elkarlanean arituz.
 - bere langileei, hala egokituz gero, zerbitzuak azpikontratatzeko kontratuan eskatutako Babes Kolektibo edo Indibidualerako Ekipoak (homologatuak) eskaini behar dizkie.
 - laneko ekipoak eta ibilgailuei dagozkien mantentze-lanak egin behar dizkie, ekoizlearen jarraibideekin edo aplikagarri zaion araudi bereziarekin bat etorritik.
 - Bere langileei beharrezko hezkuntza edo trebakuntza eskaini behar die lana hasi aurretik, edo izendatutako lan bat aldatzen duten zirkunstantziak gertatzen direnean (ahaztu gabe fase eta eragiketa bakoitza egiteko modu zuzen eta seguru bat dagoela).
 - Pasaiaiko Portuko Agintaritzak bere esku jarri dituen baliabideak erabiltzen baldin baditu (korrante elektrikoaren hartuneak, ur-hartuneak eta abar), Pasaiaiko Portuko Agintaritzari jakinarazi behar dizkio horiek erabiltzearen ondorioz eragin ditzakeen kalteak, segurtasun-egoerarik onenean mantentzeari begira.

7. ERREFERENTZIAZKO INFORMAZIOA (PLANOAK)

SU-ITZALGAILUAK	Ident. zkia	MOTA	
		Agentea	Karga
ZUMAIAKO ITSASARGIA	FZU 1	ABCE	9 KG
ZUMAIAKO ITSASARGIA	FZU 2	ABCE	9 KG
ZUMAIAKO ITSASARGIA	FZU 3	CO2	5 KG

SU-ITZALGAILUAK	Ident. zkia	MOTA	
		Agentea	Karga
GETARIAKO ITSASARGIA	FGE 1	ABCE	9 KG
GETARIAKO ITSASARGIA	FGE 2	ABCE	9 KG
GETARIAKO ITSASARGIA	FGE 3	CO2	5 KG

SU-ITZALGAILUAK	Ident. zkia	MOTA	
		Agentea	Karga
IGELDOKO ITSASARGIA	FIG 1	ABCE	9 KG
IGELDOKO ITSASARGIA	FIG 2	ABCE	9 KG
IGELDOKO ITSASARGIA	FIG 3	CO2	5 KG

SU-ITZALGAILUAK	Ident. zkia	MOTA	
		Agentea	Karga
S. KLARA ITSASARGIA	FSC 1	ABCE	9 KG
S. KLARA ITSASARGIA	FSC 2	ABCE	9 KG

Platako Itsasargia

SU-ITZALGAILUAK	Ident. zkia	MOTA	
		Agentea	Karga
PLATAKO ITSASARGIA	FPA 1	ABCE	9 KG
PLATAKO ITSASARGIA	FPA 2	ABCE	6KG

Senokozuluako Itsasargia

SU-ITZALGAILUAK	Ident. zkia	MOTA	
		Agentea	Karga
SENOKOZULUAKO ITSASARGIA	FSE 1	ABCE	9 KG
SENOKOZULUAKO ITSASARGIA	FSE 2	CO2	5 KG
SENOKOZULUAKO ITSASARGIA	FSE 3	CO2	5 KG

Higereko Itsasargia

SU-ITZALGAILUAK	Ident. zkia	MOTA	
		Agentea	Karga
HIGEREKO ITSASARGIA	FHI 1	ABCE	9 KG
HIGEREKO ITSASARGIA	FHI 2	ABCE	9 KG
HIGEREKO ITSASARGIA	FHI 3	CO2	5 KG